

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Behin betiko onestea 2019ko aurrekontu orokorra

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez aurkeztu inolako erreklamaziorik ez oharrik 2019ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena emateko erabakiaren kontra, behin betiko onartuta geratzen da aurrekontua, aurrekontu betearazpeneko arauarekin, plantillarekin eta lanpostuen zerrendarekin batera. Hona hemen kapituluka laburturik:

GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA
I. Langile gastuak	403.369,79
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	303.600,00
III. Finantza gastuak	478,63
IV. Transferentzia arruntak	257.300,00
V. Kreditu orokorra eta aurreikusi gabeko beste batzuk	8.273,34
VI. Inbertsio errealak	834.318,90
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
IX. Finantza-pasiboak	14.521,37
Gastuen egoera, guztira	1.821.862,03

DIRU SARREREN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA
I. Zuzeneko zergak	374.000,00
II. Zeharkako zergak	40.000,00
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	108.150,00
IV. Transferentzia arruntak	484.276,66
V. Ondare bidezko diru sarrerak	11.350,00
VI. Inbertsio errealak besterentzea	0,00
VII. Kapital transferentziak	804.085,37
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
IX. Finantza-pasiboak	0,00
Diru sarrerak, guztira	1.821.862,03

LANPOSTUEN ZERRENDA

A) Gaikuntza nazionala duten funtzionarioak. Lanpostuaren izena: Idazkari-kontuhartzaitza.

Administrazio egoera: aktiboan. Lanbide kategoria: A1 taldea, 26/27 maila (Udalhitz). Titulazioa: zuzenbideko, Politika Zientzietako, Soziologiako edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietako gradua. Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe. Berariazko osagarria: 27.634,96 euro. Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: administrazioa.

B) Udaleko funtzionarioak.

1. Lanpostuaren izena: Administrazio Orokorreko administraria.

Administrazio egoera: aktiboan. Kategoria profesionala: administraria. C taldea, 12/20 maila (Udalhitz). Titulazioa: lehen mailako lanbide heziketa; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 1994ko abenduaren 31. Berariazko osagarria: 14.430,20 euro. Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: administrazioa.

2. Lanpostuaren izena: udal aguazila.

Administrazio egoera: aktiboan. Kategoria profesionala: menpekoak; E/AP taldea, 11/14 maila (Udalhitz). Titulazioa: eskola ziurtagiria. Hizkuntza eskakizuna: 2. Berariazko osagarria: 18.413,50 euro. Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: udaletxea.

C) Lan kontratupeko langile finkoak.

1. Lanpostuaren izena: Administrazio Orokorreko administraria. Lanaldiaren ehuneko 85,7. Administrazio egoera: aktiboan. Kategoria profesionala: administraria. C taldea, 12/20 maila (Udalhitz). Titulazioa: lehen mailako lanbide heziketa; hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe. Berariazko osagarria: 12.349,03 euro. Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: administrazioa.

2. Lanpostuaren izena: zerbitzu askotarako behargina.

Administrazio egoera: aktiboan. Kategoria profesionala: zerbitzu bereziak; E/AP taldea, 11/14 maila (Udalhitz). Titulazioa: eskola ziurtagiria. Hizkuntza eskakizuna: 2. Berariazko osagarria: 18.032,28 euro. Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: zerbitzu publikoak.

3. Lanpostuaren izena: garbitzailea. Administrazio egoera: aktiboan. Kategoria profesionala: menpekoak; E/AP talde, 5/13 destino maila (Udalhitz). Titulazioa: eskola ziurtagiria. Hizkuntza eskakizuna: 2. Berariazko osagarria: 9.270,38. Lantokia: zerbitzu publikoak.

4. Lanpostuaren izena: garbitzailea. Administrazio egoera: aktiboan. Lanaldiaren ehuneko 20. Kategoria profesionala: menpekoak; E/AP talde, 5/13 destino maila (Udalhitz). Titulazioa: eskola ziurtagiria. Hizkuntza eskakizuna: 2. Berariazko osagarria: 1.854,02. Lantokia: zerbitzu publikoak.

5. Lanpostuaren izena: peoia. Administrazio egoera: aktiboan. Kategoria profesionala: menpekoak; E/AP talde, 13 destino maila. Titulazioa: eskola ziurtagiria. Hizkuntza eskakizuna: 2. Berariazko osagarria: 5.955,88 euro. Lantokia: zerbitzu publikoak.

2019ko aurrekontu orokorra eta langileen plantillak onartzeko erabakiaren kontra, interesdunek zuzen-zuzenean aurkeztu ahal izango diote administrazioarekiko auzi errekurtsua Gas-teizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiari, 2 hilabeteko epean, erabaki hori ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lapuebla de Labarca, 2019ko urtarrilaren 28a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO